

Izkuntza

Itz asko ditugu euskeraz erderazko **lenguaje, idioma** (langage, idiome) esateko: izkuntza, izkera, mintzoera, berbeta, izketa ta abar. Zer esan nai du? Geure barruko bururakizunak aditzen emateko erabilli oi degula izkuntza. Onen bitartez gera, ain zuzen, alkarri ulertzera irixten. Abere ta pistiak ez dute izkuntzarik eta, jakiña, ezin, barruan ezer ba'dute ere, bat-tak besteari adierazi.

Era bitakoa da izkuntza: barrukoa —*verbum mentis*— bata, gogoaren barren itza, adimenaren adierazlea, eta kanpotikoa —*terminus oralis*— bestea, au da, ol-dozkuna, pentsamentua adierazteko darabilgun mingain-ezaugarria. Izkera, izan ere, naiz barruko naiz kanpotiko, ezaugarri degu.

Mailla bat beerago jatsiaz, izkuntza errialde batek ezpain-gaiñ darabilen izkera edo adierazgarri apartekoa, berezia dala esan bear degu. Bai, erri batek, abenda batek bere gogapenak alkarri aitzen emateko erabilli oi ditun itzak eta esaerak osatzen dute **izkuntza**.

Gure euskera, esate baterako, euskaldunok geure artean, gauzak eta sentipenak alkarri aitzen emateko, darabilgun izkera berezi ta bakana degu. Beste abenda ta errialdeak berenak dauzkate, espainarrak espainieraz, prantsesak prantzeraz, italiarrak italieraz mintzaturik.

* * *

Nola sortu ote zan len-izkuntza? Nola datoz beste guztiak? Ona bi galdera lñdiz ere rantzun ziurrik izango ez dutenak. Jakintsuak badiardute, igarotako mendetik asita batez ere, ari ta ari izkuntzen ezkutua estalgetu naita; oraiñarte, baiña, ez dute gauza argirik atera. Ta gerora ere, izardiak bota arren, ez dute zeri suadirik iritxiko. Kondaira aurretik gauzak ditugu, ta gaur nai gogatu beren benetako agiriz ta ziurtasunarekin beintzat, osoro zaila izango da gizonari lorratzik gabeko lurraren aietan argia egitea. Eiza-zakur ta bernaiak ere, susmo azterrenik ezpada, ezin izan oi du ezer iritxi. Glaxe guri ere,

Asieran izkuntza bat besterik etzan, sendi bat besterik etzan be-

zela. Irakur Asiera liburuak diñoana: «Lur osoan, ordun, ezpain bat bakarrik zan; izkera bat bakarrik. Baiña orduko biztanleak, eguzki-aldetik irtenda, Senaar errialdean ordoki bat, lautada bat aurkitu zuten, eta an gelditu ziran. Eta alkarri esan zioten: «Ea! Buztiña oreto ta sutan egosi dezagun». Eta buztin egosia arritzat eta uia espaloitzat erabilli zuten. Esan zuten: «Eup! Jaso dezagun uri bat, zerurainoko dorre batekin! Entzute aundiko izena irabazi dezagun, lurrean sakabanatuta alderrai ibilli aurretik».

«Baiña Jainkoa jatxi zan gizonak egiten zuten uria ta dorrea ikusteri; ta Jaube'k esan zuen: «Ona, guztiok erri bat dira, eta guztien izkera ere bat da; beren egitekoan asten dira ta ez dute beren asmoa burutzea eragortzen dienik. Ea! Jatxi ta izkuntza naas dezaiegun, bat-tak bestearen izkera uler ez dezan!». Eta Jaube'k lurralde guztietara sakabanatu zitun andik; eta uria egitetik atzeratu ziran. Eta orrela, uri ark Babel izena artu zuen, bertan, Jaube'k lur osoko izkuntza naasi zuelako. Ta andik, Jaube'k lurralde guztira barraiatu zitun» (**Asiera**, 11, 1-9).

Babel dorreko jazoera onek, mi-

llaka urteak dirala, arduraz ta ausnarrean jarri izan ditu gizonak. Bibli-zatitxo au irakurriaz, ain bizi lilluratzen gaitun asierako misterioa geure esku-atzez ikutzen gaudela iruditzen zaigu. Goethe'k ederki esan oi zuen: «Noizik bein atzerantz begiratzea, gizaseme jakintsuena degu». Ta orrela izan ere: geure mendien ertzak jakin nai izaten ditugu, baita geure izen-abizenaren susterra ere, ta geure sendiaren seaska. Bai, guztiok jakin nai degu nundik datozten gauzak; baita geu nundik gatozen ere. Ta jakin-min au ezta jakin-naikeri utsa, zerbait geiago baizik.

Babel'go izkuntz-naste aren ondorean, gizonak etzuten alkar ulertzen. Eta onetar konturatu zirenean, Adan eta Eba paktu ostean bezin bakar eta tralozik jotzen zuten beren burua. Izan ta izango zan, ziur asko, guñdela naspil ura; eta ondorengo izkera? Dana dala, erronka bat izan zera, eta gizona gizon egin oi da era on-tako erronka ta eupadak bilduaz.

Bearrizan eta premiña askoz inguratuta ikusi zituzten gizonak beren buruak dorrea erori zanean; mamu antzera jarten zitzaizkien begi aurrean. Zenbat eta sakabana-tuago ta bearrizan ugariagoak. Ba-

rruan zeramaten bakartadeaz gero ta geiago jabetzen ziran. Eta bearrizan aietatik bearrrena alkarrekin aditzea zan. Babel'go biraoa zeramaten gaiñ, eta ez gramatikaz ez iztegi, etzuten maldiziño ori gaiñetik astintzen.

* * *

Lenengo izkuntza ez dakigu nola sortua izan zan. Baiña, ala ere, jakintsuen iritzi batzuk: 1) **abere-oiua**, ots, gizadia pixkaka joan zan len oiua eratuaz, lenen barren zauskadazko intziriz ta abere-inkesaz gero; 2) **alkartzezko asmaketa**, au da, gizonak bere adimen-indarrez asmatu omen zuen izkera; 3) **sortzezkoa**, Jainkoak sortu omen zuen gizonaren len-izkuntza; 4) **sen adierazkorra**, au da, gizonak bai omen du bere baitan olako berezko sen bat gauzak ezagutu ta besteai adierazten emateko; 5) **zirrara-zalekoia**, arima-zale batzuk diñoenez, barruko eiagoraz, zirkiñez eta abotsez aitzen eman oi degu geure baitako zera; 6) **landuz egiña**, au da, adimendun giza-kiak ba-du indarrrik gauzak adieraziz itz egiteko, gogapenak sortu ta auek irauliz besteai aitzen emateko. Azkenengo auxe degu nunbait abururik argarriena.

Misterio ta ezkutu artean bide dagigu, ta ezin gauza ziurrik jakin. Baiña asieran, Liburu santuai siñistu ezker, izkera bat zan bakar-bakarrik. Geroko naspilla, gizona Jainkoa bezin aundia izan naitik sortua noski, izugarria izan zan dudarik gabe. Ta etzan izan orduan izkera berrien sortzea bakarrik, baita lengo ta gerokoen pentsakera etetzea ere. Aurretiko aiek ba ote zuten literaturarik? Ba zuten ere, or geratu zan naspil aren arietatik dardar.

Baita izkuntza naste arek ekarri zuen, edo obeki, eraiki zuen gizataldeen artean olako orma izugarri bat. Gaur ere oraindik ba-d'rau orma orrek, eta ondo zutik iraun ere: munduko izkuntzen bereizketa. Errialde bakoitzak degu izkuntza apartekoa, eta ezin gera ulertu auzokoekin ere.

Gaur ere, millaka urte asko igaroak izanagatik, bi milla izkuntzatik gora dira mundukoak; izkelgiak (dialektoak) berri bost milatik gora, jakintsuak dioenez. Balbi'k 860'raiñ gertatu zitun, munduan onela zahalduak: Europa'n 53 izkuntza; Afrika'n, 115; Asia'n, 153; Ozeania'n, 117, eta Ameriketean, 422; guztiz: 860.

Munduan zenbat izkelgi diran zeatz jakitea, ezta errez. Baiña asiko dira. Euskeran bakarrik dauzagu bost, nagusienak bakarrik aipatuta: bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, zuberuera ta naparrera. Izkuntza bat bera dalarik, bost izkelgi. Eta orrelaxe beste izkuntzetan ere.

* * *

Ona gertakari arrigarri bat: nasteak beti ere etekin eta obariak, bentajak ekarri oi dizkigu. Babel'go izkuntza nastetik sortu zan munduan gaur daukagun literatura, edo beintzat, literatura premiña. Izkuntza bat bera izan ba-litz, gizarte guztian, zer gertatuko ote zan? Itxasoko urari jazoten zaiona noski; dena geza izatea. Etzan iñolaz ere gaur bezin atsegiña izango.

Ezin alkar aituz ta kiñuka, talde ta samalda ta multzoetan banandu ziran gizaseme mintzo gabe aiek. Ala ere, ba-zuten barnean ondo josisa lengo izkuntz bakarraren otortza, ta onen antzera bakoitzak berea asmatu ta eratzen saiatuko ziran. Ona gaur dazauzkigun izkuntzen asiera. Taldeak ziran basamortu zear edo-ta ibar-mendi zear zebiltzanak; beren buruzagi ta

nausiak zituzten, jakituriz, nausitasunez edo indarrez jarriak. Auek, ordea, mendeko zuten erri-taldeak zuzendu ez-ezik, bear zuten kultura ta laguntza ere eman-go zien aieri. Labur, izkuntza.

Aiek beren kondaira, edestia, istoria zuten, berak egiña. Guk Edesti aurreko istoria deitzen dioguna. Ezer ba al dakigu orri buruz? Talde edo klan aien enda, erraza, izkuntza, oitura, erlejio-siñiskera ta lurbira goraberañ buruz jakintsuak esan eta asmatu dutena, ipotesis utsa besterik ezta; au da, giza-adimen labatxoak egosita opil sustar bagea. Millaka urte askotan gizona alderrai, ara ta ona hizi izan zan, eta epe luze orretan gizonak ber egin zuen gük ez dakigu. Ta etan egiña, dan ezker, gizonaren kondaira, iñolaz ere ez degu ondo jakingo gizona ber izan ote ote ber egin duen ber gaitzak, gaitzak, zibilizazioa, nolako, nola, nola, nola, ko artea izan duen.

Igalat: antz, antz, antz, antz, eizatu ta antz, antz, antz, antz, bere egitekoa, lanegoria, Gertu teknika batzuk asmatu zitun bere bizitza zaindu ta gordeteko. Abere ta pistiak arrapatu zitun, eta landarak sartu. Talde bakoitzak zitun